



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO ALDEZ AURREKO KONTSULTA EZARTZEKO DENA. XEDAPEN HORREN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEETAN —FONDO PUBLIKOEKIN ORDAINDUTAKOETAN— IKASTURTE BAKOITZEKO ESKOLA-EGUTEGIA EGITEKO OINARRIZKO ARAUTEGIA ZEHAZTEN DUEN AGINDUA ALDATZEN DA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko martxoaren 10eko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan —fondo publikoekin ordaindutakoetan— ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia egiteko oinarrizko arautegia zehaztu zen. Agindu hori aldatu egin da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 3ko, 2016ko maiatzaren 6ko eta 2019ko apirilaren 1eko aginduen bidez.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak sartutako aldaketan, 120.4 artikuluan ezartzen duenez, ikastetxeek, beren autonomia baliatuz, besteak beste, eskola-egutegia edo eremuetako, arloetako edo irakasgaietako eskola-ordutegia handitu ahal izango dute, hezkuntza-administrazioek ezarritako baldintzetan eta aplikatzekoa den araudiak, lanekoa barne, ahalbidetzen dituen aukeren barruan, eta inola ere ez da diskriminaziorik eragingo, eta familiei ez zaie ekarpenik eta hezkuntza-administrazioei eskakizunik ezarriko.

Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak hamaikagarren xedapen gehigarrian, eskola-egutegiari buruzkoan, ezartzen du administrazio eskudunek eskola-egutegia egokitu ahal izango dutela, kirol-irakaskuntzen berezitasunak kontuan hartuta, eta kirol-modalitate edo -espezialitate batzuetako irakaskuntzak, garatzen diren eremuaren arabera, aldi baterako baldintzen mende daudela.

Bidezkoa da 2008ko martxoaren 10eko Agindu hori aldatzea, kirol-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek egutegia beren beharretara egokitu ahal izan dezaten, ematen dituzten kirol-modalitateek edo -espezialitateek hala eskatzen dutenean.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133.1 artikuluan xedatzen duenez, arau-xedapenaren proiektu bat egin aurretik kontsulta publikoa egin behar da administrazio eskudunaren atariaren bidez, eta kontsulta horretan etorkizuneko arauak eragin ahal dien pertsona eta erakunde esanguratsuenen iritzia jasoko da.

Kontsultak honako alderdiei buruzkoa izan behar du:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartzeko premia eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon daitezkeen ordezkari bide batzuk, arautzaileak eta ez arautzaileak.

Alegia, kontsulta publikoko izapidea:

- Etorkizuneko arau-erregulatze horrek eragin ahal dien instituzio publiko, pertsona fisiko, erakunde edo elkarte guztiei zuzentzen zaie.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian emango da argitara.
- 15 egun balioduneko epea ematen da eragindako instituzioek, herritarrek eta beren erakundeek nahi dituzten iradokizun edo oharrak aurkez ditzaten.

Horregatik, legez aurreikusten den eskemaren arabera gauzatzen da, orain, kontsulta publikoaren tramite hori. Gainera, arau-proiektua egin aurretik eta ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, 4. eta 5. artikuluetan arautzen duen fasean gauzatzen da.

Otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Xedapen orokor baten proiektuari buruzko kontsulta publikoa egitea, egin aurretik. Xedapen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan — fondo publikoekin ordaindutakoetan— ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia egiteko oinarritzko arautegia zehazten duen agindua aldatzen da.

Bigarrena.- Herritarrek eta arauak eragiten dien erakundeek 15 laneguneko epea izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia Sailari helarazteko.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

Jokin Bildarratz Sorron
Hezkuntzako sailburua

ERANSKINA

1.- Ekimen arauemaile horren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak sartutako aldaketan, ikastetxeek, beren autonomia baliatuz, besteak beste, eskola-egutegia edo eremuetako, arloetako edo irakasgaietako eskola-ordutegia handitu ahal izango dute. Halaber, Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak ezartzen du administrazio eskudunek eskola-egutegia egokitu ahal izango dutela, kirol-irakaskuntzen berezitasunak kontuan hartuta, eta kirol-modalitate edo -espezialitate batzuetako irakaskuntzak, garatzen diren eremuaren arabera, aldi baterako baldintzen mende daudela. Dena den, egokitzapen horiek ezin dira egin, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko martxoaren 10eko Aginduak ez baitu aukera hori aurreikusten.

2.- Onartzeko beharra eta egokitasuna.

Ikastetxeek euskarri juridikoa izan behar dute, behar diren eskola-egutegiaren egokitzapenak ezarri ahal izateko, kirol-irakaskuntzen berezitasunak kontuan hartuta, eta kirol-modalitate edo -espezialitate batzuetako irakaskuntzak, garatzen diren eremuaren arabera, aldi baterako baldintzen mende daudela.

3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

Arauaren helburua da 2008ko martxoaren 10eko Agindua aldatzea, kirol-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek aurreko atalean deskribatutako eskola-egutegiaren egokitzapenak ezarri ahal izan ditzaten.

4.- Egon daitezkeen ordezkio irtenbide erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan —fondo publikoekin ordaindutakoetan— ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia egiteko oinarrizko arautegia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko martxoaren 10eko Aginduan jasotzen da. Beraz, kirol-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen egutegia egokitzeko aipatutako agindua aldatu behar da.